


2013/14
IKASTURTEA

Herri Ametsa Ikastolako ORIENTAZO PLANA

K E I
Kalitate Egitasmo Integratua



Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28
Donostia
Tfn-943 393520

herriam@ikastola.net
www.herriametsa.com





ORIENTAZIO PLANA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



AURKIBIDEA

1 SARRERA	3
2. HEZKUNTZA PROIEKTUKO ORIENTAZIO PRINTZIBIOAK	3
2.1 HELBURU OROKORRAK	3
2.2 ORIENTABIDE ZERBITZUA ETA LAGUNTZA GELA.	5
2.2.1 Definizioa.	5
2.2.2. Laguntza Gela	6
2.3 EGITURA	6
2.3.1 Ezagutza eta adimena	7
2.3.2 Orientazio esparruetako interbentzioaren helburuak	9
3. MARKO LEGALA	12
4. LAN ESPARRUAK	13
4.1 IRAKASKUNTZA-IKASKUNTZA. ANIZTASUNAREN TRATAERA.	13
4.2 TUTORETZA PLANA	18
5. ORIENTAZIO ZERBITZUKO URTEKO EKINTZA PLANA	36
6. ORIENTAZIO ZERBITZUKO EBALUAZIOA	39
7. ERANSKINAK	41



ORIENTAZIO PLANA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



1. SARRERA

Herri Ametsa ikastolan Orientazioa, bere zentzu zabalenean hartuta, pertsonen auto-errealizazio bidean erabakiak hartzen laguntzeko prozesu bezala ikusten dugu. Era horretan irakasle guztion eginkizuna da.

Ikaslearen izaera propioak ikastolaren egitekoaren erreferente nagusia izan behar du, nahiz eta bere osotasuneko aplikazioa ezinezkoa gertatu, giza baliabide urrien ondorioz.

Aniztasunaren azterketa eta ekinaren ahaleginean, eremuak eta mailak aukeratzen eta osatzen joango da Herri Ametsa Ikastola, behar nagusietatik hasiz, hobekuntza pedagogiko hau etengabea bihurtuz. Irakaskuntza sisteman, ikasketen ulergarritasuna ziurtatzea ikaslearen eskubidea baldin bada, aniztasunaren araberrako egokitzapena da aurreko printzipioaren baldintza osagarria.

Hona hemen, HEZKUNTZA INDIBIDUALA bermatuko luketen zutabe nagusiak:

- Bakoitzak bere buruaren ezagupenean aurrera egin eta sakontzea.
- Ikasleek bere burua ezagutzetik eta bere buruaren irudi egoki eta positiboa edukitzetik abiatuz, oreka afektiboa lor dezaten ahalbideratzea.

Hezkuntza-prozesua ikaslearen behar zehatzei egokitzea.

- Ikaskuntza arazoak eta moldaera pertsonala eta sozialaren zailtasunak aurreikustea eta ahal den neurrian bideratzea.
- Heldutasun pertsonala, balioak, jarrerak eta jokabideak indartuz, ikasleak erabakiak modu autonomo eta arduratsuaz hartzeko gaitzea.
- Norbere jardueretan arduratsua eta autodiziplinatua izan dadin gaitzea.

2. HEZKUNTZA PROIEKTUKO ORIENTAZIO PRINTZIBIOAK

2.1 HELBURU OROKORRAK.

1. Ikaslearekiko arreta pertsonala antolatzea.
2. Ikastetxeko hezkuntza komunitateak ezarriak dituen hezkuntza proiektuaren eta irakaskuntza sistemaren beharrei ikaslea indibidualki egokitzen saiatzea, nahiz ikasle berezia eskola ingurunean integratuz -ikasleen integrazioa gure garrantzizko helburu bezala onartuz- nahiz atzerapenak zuzenduz; azkarragoak direnei, garapen handia eskain dezaketzen curriculumak dibertsitatearen irizpidez zabalduz erantzungo zaia zeharka.



ORIENTAZIO PLANA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



3. Bereziki, ikasle bakoitzari garaiz egindako diagnosis ziurtatzea; horretarako eginbeharrak: Eskola lehen mailetatik dauden premia nagusiak antzematen saiatzea, atzerapen arinak -fisikoak, psikomotrizak eta akademikoak- aztertuz. Hobetze plana eta, lana antolatzea, arazoan jarraipena eginez. Eta, batez ere, prebentzio-lana zaintzea.
4. Ikastetxearen barruko hezkuntzak eta eginbeharrak eskatzen duen jarrera eta jokabideak eragitea, gerta daitezkeen desbideraketak eta arazoak bereziki zainduz.
5. Ikasleak bere buruarekiko duen auto-kontzeptua indartzeko - hobetuz edo onartuz- laguntzea, norberaren ezagutzaren lorpena eraginez, besteekiko harremanak bideratuz eta bere egitekoaren aurrean motibatuz.
6. Ikaslearen jarrera eta jokabidean eragin zuzena duen eskola ingurunea - irakasle, tutore edo gurasoekiko harremanak, ikastetxearen antolaketa, programa eta metodologiaren egokitasuna... behar bezalakoa den aztertzeaz kezkatzea.
7. Ikasketaren oinarria den ikas ohituren eta ikas tekniken arloaren jabe egingo dela ikaslea ziurtatzeko programa eta lorpenaren jarraipena ezartzea.
8. Ikasleak bere lagun edo lankideekin, nahiz bakarka nahiz taldean, dituen harremanak zaintzea, beharrezkoa ikusten denean integrazio edo egokitze bideak landuz eta lagunduz.
9. Ikaslearen hezkuntzarako nagusiak diren zenbait arloren lanketa, hala nola, Osasun heziketa, Kontsumoari buruzko heziketa, Sexu heziketa, ziurtatzea, gai hauen inguruan bereziki ager daitezkeen kezkak jasa eta informazio eta laguntza eskainiz.
10. Gai hauekiko -eta beste zenbait gairekiko- gurasoen formazioan elkarlanean aritzea, gurasoen eskolaren ardura zuzena duen kultura batzordearekin batera.
11. Ikasleek ikasketen prozesuan zehar egin behar dituzten aukera ezberdinak era egokiagoan egin ahal izateko laguntza eskaintzea; era berean, lanbide edo irakaskuntza alorretako jarraipena aukeratzeko informazio eta laguntza berezia antolatzea, joera bokaziozko irizpide nagusitzat hartuz.
12. Orientazioa, bere edozein funtzio eta funtsezko edukietan, ikasketa prozesuari lotuta joan behar du. Zentzu honetan planteatzen den orientazio ereduaren ondorengo alde hauetan oinarritzen da: aholkularitza, talde-lana, elkarren



ORIENTAZIO PLANA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



arteko hausnarketa, elkarren arteko erabakiak eta kontzentzuen bidezko erabakiak.

2.2 ORIENTABIDE ZERBITZUA ETA LAGUNTZA GELA.

2.2.1 Definizioa.

Orientabidea kontzeptuak esanahi oso zabala du, hala ere, gure Ikastolak badu Orientatzailea. Honek eta Ikasketa Buruak gutxieneko arreta ziurtatu nahi du, barruko pertsonalarekin batera -tutoreak, irakasleak, PT- edota kanpoko espezialisten bitartez. Gutxieneko arreta horrek zailtasun bereziak edota oinarritzko beharrak zainduko ditu, ondoko atal hauetan:

a) Ikaslearekiko:

- Diagnostika: irakasleriaren behaketa eta orientatzailearen laguntza izango dira haurren egoera ezagutzeko lehen pausuak. Orientatzaileak gidatuko du kanpoko jarraipenaren beharra.
- Programa orokorra: egile berberak zehaztuko dute egoera berezi horretan eragiteko programa, nahiz egokitzapen curricular esanguratsua ezarri behar, nahiz egokitzapen arinagoak izan. Tutore edota saileko arduradunarekin, "PT" eta ikasketa buruarekin erabakiko dira programaren aplikaziorako baliabideak.
- Ebaluazioa: maila eta arlo nagusietan ebaluatuko da haur guztien egoera, neurketa objektiboen bitartez; maizago eta zehatzago aztertuko dira egokitzapen curricularretan ari direnak.

b) Nortasunaren eta maila sozio-afektiboaren jokabide eta jarrera berezien arreta.

Tutoreak eta gurasoek parte hartuz, orientatzaileak zuzenduko du jokaera sozial eta afektibo berezien tratamendua, kanpoko zerbitzuen laguntza ere antolatua eta prest duelarik, nahiz kanpotik nahiz ikastolara bertara ekarriz.



ORIENTAZIO PLANA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



c) Zehar lerroen gaien lanketa.

Hezkuntzarako eta norberaren orekarako nagusiak diren zeharkako gaien lanketa bermatuko du ikastolak, berari dagokion arloan. Ondoko helburuetan eta Hezkuntza Proiektu osoan zehar definiturik daude eta irakasleriaren ardurapean dago lanketa horren antolaketa.

d) Orientazio profesionala.

Bigarren Hezkuntzan bereziki landu behar den arlo honek bi norabide nagusi ditu:

1.- Geroko ikasketen –batxilerrak edota lanbide hezkuntza mailakoak izan- informazioa ematea eta, behar izanez gero, aukera horretan zuzenean laguntzea ikasleari berari edota gurasoei.

2.- Ikastetxearen curriculumetako ikasketen ibilbidea ikasleen beharrekina eta geroko ikasketen jarraipen posiblearekin lotzea, jarraipen hori Herri Ametsan bertan edota kanpoan egin behar badu ere.

2.2.2. Laguntza Gela

Ikastetxeak, hezkuntza-sistema arruntean aldi baterako hezkuntza-premia berezi edo premia iraunkorren bat duten ikasleei kasu egiteko ahalegin berezia egin behar du

Egokitzapen curricular esanguratsuak –bai etapan eta bai arloan ezarri ahal izateko, behar-beharrezkoa da Laguntza Gela mantentzea. Ondorioz, gure Ikastola honetan saiatuko da:

- Laguntza Gelak mantentzen eta egoki antolatzen. Batez ere, gure ustearen araberrako -eta ez nahitaez legearen baldintza mugatzaileen araberrako- egokitzapen kurrikular esanguratsuen programak aplikatuko dira hemen.
- Laguntza zerbitzua eskaintzen. Arloko kurrikular egokitzapenak ere aplikatuko dira, behar duten ikasleekin, bai Laguntza Gelaren bitartez, baita irakasle beraien bitartez ere.

2.3 EGITURA

Orientabide nahiz Integrazio zerbitzuak ikastetxearen zerbitzuak dira eta ez da,beraz, horretan ari diren pertsona berezi batzuen funtzioa bakarrik; ikastetxearen curriculumeko parte bezala integratu behar da.



ORIENTAZIO PLANA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



Arlo bakoitzeko partaide zuzenak:

1. ORIENTABIDE ZERBITZUAN:

- a. Orientatzailea
- b. Tutoretza: figura garrantzizkoena eta orientabidea zuzenean aplikatzen duena.
- c. Irakasleak:
 - Orientabidean kide osagarria da.
 - Errekuperazio arloa dagokio zuzenean.
- d. Kanpoko zerbitzu laguntzaileak:
- e. Gurasoak:
 - Seme-alabekiko laguntza zuzena ematen dute.
 - Gurasoen formazioan eta gurasoen eskolaren eginkizunetan partaideak dira.

2. INTEGRAZIO ZERBITZUAN:

- Tutorea.
- Gela berezien arduradunak.
- Gurasoak eta kanpoko zerbitzu laguntzaileak.

2.3.1 Ezagutza eta adimena

Ikastetxearen zeregin nagusia heziketarekin batera irakaskuntza da, eta arlo horretan, jarrerak eta prozedurak edukiak bezain garrantzizkoak dira. Halaber, irakaskuntza aktiboan oinarrituko gara, ikaslea izanik ikastetxearen subjektua eta ikasketen protagonista.

Era berean, irakaskuntza kritikoa gure hezkuntza proiektuko printzipio nagusi bat da.

Beraz, ulermena, interpretazioa, hausnarketa eta iritzi propioa nahiz partaidetza eraikitzailea bermatuko dira. Horretarako, ikaslearengan landuko diren gaitasunak hauek izango dira:

- Ikasleak dituen gaitasun intelektualak ahalik eta gehien garatzea. Horretarako jakin-mina eta interesa suspertu, eta aldi berean, ikasteko teknika eta lan ohitura zuzenak irakasten dira.
- Eskura dituzten informazio-bitartekoak erabiltzen irakasten da: entziklopediak, kontsulta-liburuak, elkarrizketak, Internet eta abar.



ORIENTAZIO PLANA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



Teknologia eta ohiko baliabide nahiz berrietan trebatzen eta bitarteko gisa erabiltzen dira.

- Bakarkako nahiz taldeko lanetarako beharrezkoak diren autonomia eta partaidetasunaren jabetza lantzen da.

Ikas-ohiturak planifikatzen irakasten da: ikaslekua aukeratzen, ikastordua antolatzen, gorputzaren jarrera egokiak mantentzen, lanak txukun eta garbi egiten, baita epe barruan aurkezten ere.

- Adimen faktore desberdinak garatuz, metodo deduktiboaren eta induktiboaren oinarriak jartzen dira. Problema ebazteko edo egoerak gainditzeko prozedurak sortu, konparatu, soluzio bide arrazoituak proposatu, zuzena aukeratzen saiatu eta ere egokitasuna egiaztatu.
- Adierazpen matematikoaren hainbat modu (zenbakizkoa, grafikoa, logikoa...) norberak ohiko arrazoiketa bide eta hizkuntzan txertatu, pentsamendu propioa gero eta modu zehatz eta egokiagoz komunikatu ahal izateko.

Entzumena, irakurmena, mintzamina eta idazmena ziurtatzen dira, ikaste-prozesuan ezinbestekoak direlako.

- Ulermenerako hain beharrezkoak diren azpimarratzea, koadro sinoptikoak, eskemak, laburpenak, grafikoak, eskalak, mapak eta beste hainbat prozedura interpretatzen, ondorioak ateratzen eta erabiltzen irakasten da.
- Testu tipologia guztiak lantzen dira eremu guztietan (pribatuan, eskolan, instituzioetan, komunikabideetan eta literarioetan): azalpenak, instrukzioak, aginduak, narrazioak eta argudioak.
- Ekoizpen idatziak zein ahozkoak egiten irakasten da, egokitasunez, koherentziaz, kohesioz eta zuzentasunez.
- Oroimena lantzeko eta jasotakoa gordetzeko, informazioa gogoratu eta birgogoratuz finkapen lana egiten da, aurre-jakintza eta ulergarritasunaren oinarritik abiatuz.

Ikasleen arreta bermatzen da: irakasleak behaketak eginez eta auto-kontrola irakatsiz.

- Erabilitako materiala -norberarena, taldearena nahiz orokorra- zaintzen irakasten da.



ORIENTAZIO PLANA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



- Ikasleei errespetuz jokaten irakasten zaie, euren jarrerak besteengan izan ditzaketen ondorioez ohartaraziz.
- Bake Hezkuntzaren inguruko hausnarketa etengabea egiten da, giza eskubideak aztertzen dira eta elkarbizitzarako oinarritzako diren jarrera sozial eta etikoak eguneroko harremanetara zabaltzen dira.
- Edozein gaiaren hausnarketa ziurtatzeko asmoz, gogoeta, kritika, eztabaida, analisia eta sintesi gaitasunak lantzen dira.
- Eleaniztasuna ziurtatzen da.
- Euskal hizkuntza eta kultura oinarritzat hartu, eta kultura unibertsala irakasten da.
- Zehar lerroen bidez, nahiz Gorputz Hezkuntzaren bidez, elikadura, higiena eta osasun orekatua garatzen dira.
- Sentsibiltate artistikoa eta sormena garatzen dira.
- Hezkuntza fisikoa eta osasun orekatuaren garapena laguntzea.

2.3.2 ORIENTAZIO-ESPARRUETAKO INTERBENTZIO HELBURUAK

2.3.2.1 IKASLEAREN ORIENTAZIO PERTSONALA

- **Tutoreen beharrei zuzendutako orientazioa:**
 - Tutoreek edozein ikasleren aurrean izan ditzaketen beharrei Orientazio Zerbitzuak erantzun beharko die. Horretarako beharrezkoak izango diren aholku teoriko zein laguntza teknikoak eskaini beharko dute.
 - Horrez gain, tutoreak Orientazio Departamenduaren laguntza jasoko du ikasle zein gurasoen orientaziorako. Honetarako, tutore-orientatzaileen koordinazio bat egon beharko duelarik.
- **Ikasle edo gurasoen beharrei zuzendutako orientazioa:**



ORIENTAZIO PLANA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



- Guraso zein ikasleek Orientazio Departamenduko interbentzioa eskuragarri izango dute eta horretarako, bai Tutore bai Orientatzaileak ordutegi zehatz bat izendatua izango dute hori burutu ahal izateko.
 - Eskatzen diren eskuartze edo eskaera guztiak Tutoreak erregistratu beharko ditu. Tutore eta Orientatzailearen artean suertatzen diren bilera guztien aktak ere erregistratuko dira.
- **Premia Bereziak dituzten ikasleei zuzendutako orientazioa:**
- Behar hauek dituzten ikasleentzat, Orientazio Departamenduak programa zehatz bat sortuko du. Programa horren ardura Orientatzaileak izango du. Beti ere, Tutorearen koordinazioarekin.

2.3.2.2. KANPO ZERBITZUEKIN IZANDAKO HARREMANAK

Kasu batzuetan, Orientazio Departamenduak hala eskatuta, Kanpo Zerbitzuek parte hartuko dute interbentzioetan. Orientatzailea bera arduratuko da barne zein kanpo koordinazioaz.

2.3.2..3. ORIENTAZIO FAMILIARRA

Edozein ikasleren inguruan egiten diren interbentzio edota hartzen diren erabakiei buruz, gurasoek informazio zuzena eduki beharko dute. Hala ere, kasu batzuetan, gurasoei zenbait argibide emango zaizkie ikaslea bera interbenitu gabe.

INTERBENTZIO BATEN AZKEN HELBURUAK

Hiru esparrutan sailkatzen ditugu:

- **Ikasleei dagozkienak:**
 - 1- Norberaren ezagutza pertsonala, beharrak, interesak, balioak... hobetzen erraztu eta Ikastetxe eta gelako integrazioa ziurtatu.
 - 2- Hezkuntza prozesuaren momentu batean beharko lukeen laguntza ziurtatu.
 - 3- Norberaren arazo pertsonal eta sozialak gainditzeko estrategiak erakutsi.
 - 4- Lan mundura bideratu.



ORIENTAZIO PLANA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



- Irakasleei dagozkienak:
 - 1.- Aholku akademiko eta psikopedagogiakoan lagundu.
 - 2.- Ikasle baten inguruan beharrezkoa duen laguntza eta aholkuak eskaini.
 - 3.- Premia bereziak dituzten ikasleen irakasleak aholkatu.
 - 4.- Ikastetxean dauden beste organoekin koordinazio zuzena izan, komunean dauden helburuak lortzeko asmoz.

- Gurasoei dagozkienak:
 - 1.- Gurasoak orientatu eta baliabideak eskainiko zaizkie, beren seme-alabak akademikoki zein garapen pertsonalean lagun diezaieten.
 - 2.- Gurasoek eskatutako laguntza psikopedagogiakoei erantzun.
 - 3.- Familiei jarrera irekia eskaini, beraien seme-alabaren inguruan izan ditzaketen galdera eta beharrei erantzunez.

INTERBENTZIOAREN HELBURUAK

- Ikasleari zuzendutakoak:
 1. Hezkuntza prozesuaren jarraipen bat ziurtatuko da: bere ahalmen, interes eta zailtasunen jarraipen oso bat.
 2. Talde mailako zein orientazio indibiduala eskainiko zaie: heldutasun pertsonala eta hezkuntza prozesuan izan ditzakeen zailtasunak hobetzeko asmoz.
 3. Ikaslea formatua izango da, bere ikasketak aukeratu behar dituen heldutasun nahikoa izateko.

- Irakasleari zuzendutakoak:
 1. Irakasleria sentsibilizatu Orientazio akademiko, psikopedagogiako eta profesionalak duen garrantziaz jabetzeko.
 2. Beren ikasleen orientazio lanetan partehartzeko aholkuak eman.
 3. Premia Bereziak dituzten ikasleak aholkatu, aniztasun trataera egokia eman ahal izateko.
 4. Planteatzen diren laguntza psikopedagogiako eskaeretan eskuartu.



ORIENTAZIO PLANA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



□ Gurasoei zuzendutakoak:

1. Gurasoei orientazio eta informazio nahikoa eskaini beren seme-alabei laguntza akademikoa eta beren heldutasun pertsonalean lagun diezaieten.
2. Gurasoek eskatzen duten laguntza psikopedagogiakoei erantzun.
3. Gurasoen formaziorako, ekintza ezberdinak antolatu.

3. MARKO LEGALA

EHA - 2007ko azaroak 13 23. artikulua.– Tutoretza- eta orientazio-arloa.

1.– Hezkuntza-orientazioa etengabeko laguntza-prozesu sistematikoa da, hezkuntza-jarduerak bere borneyan hartzen duena, eta helburu du ikasleei gaitasunak eskuratzeko laguntza ematea, beren proiektu pertsonalaren eta profesionalaren jabe izan daitezen.

2.– Ikastetxearen hezkuntza-proiektuari jarraiki, Tutoretza- plana da ikasle guztiekin eskolaldi osoan tutoretza- jardueretan landuko diren orientazioko eta bestelako ekintzak antolatzeko egitura. Ekintza horien helburua ikasleek oinarritzko gaitasunak eskuratzea da.

3.– Tutoreei dagokie plan hori aurrera eramatea, irakasle- taldearekin eta ikasle-taldearengan eragiten duten gainerako eragileekin batera. Ikastetxean orientazio-lanetan aritzen diren profesionalek lagundu egingo diote tutoreari lan horretan.

4.– Ikastetxeetako tutoretza—planek atal hauek izango dituzte, gutxienez:

- Tutoretzan landuko diren gaitasunak, helburuak eta edukiak (ikasleei emandako orientazioari eta haien jarraipena egiteari buruzkoak), ikasleen premiei egokituta.
- Tutoreak ikasleekiko, irakasle-taldearekiko eta familiekiko egin beharreko lanak eta bestelako lanak.
- Ekintza horiek ikasturtean zehar egiteko plangintza.
- Tutoretza-plana ebaluatzeko irizpideak.

5.– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak jarraibideak emango ditu Oinarritzko Hezkuntzako tutoretza- planak egin eta aurrera eramateko.



ORIENTAZIO PLANA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



6.– Tutoreak, irakasle-taldearen aholkularitza jasota, eskola-orientazio indibidualako txosten bat egingo du, familiei informazioa emateko eta ikasleei orientazioa emateko, dauden aukeren artean hautaketa bat egiteko.

Txosten hori etapa bakoitzaren amaieran egingo da, gutxienez, eta baita aparteko inguruabarrek hala eskatzen badute; esaterako, ikasle batek zikloz edo ikasturtez igaro behar ez badu. Txosten horiek guztiak isilpekoak izango dira. Lehen Hezkuntza amaitzean egingo den txosten indibidualak, gutxienez, adierazi behar du ikasleak zenbateraino eskuratu dituen ikas-edukiak, batik bat, ikasle horren hezkuntza-garapena gehien baldintzatuko dutenak.

Halaber, ikaslearen banakako arreta bermatzeko funtsezkotzat jotzen diren alderdiak jaso beharko ditu txosten horrek. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren edo Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programa baten amaieran egindako txostenak etorkizun akademikoari edo lanbidezkoari buruzko orientazioa eman behar dio ikasleari.

4. LAN ESPARRUAK

- 4.1 Irakaskuntza-Ikaskuntza. Aniztasunaren trataera.
- 4.2 Tutoretza esparrua.
- 4.3 Orientazio Urteko Plana

4.1 IRAKASKUNTZA-IKASKUNTZA. ANIZTASUNAREN TRATAERA.

4.1.1 Hasierako balioespena eta jardunbideak

Herri Ametsa Ikastolak, erakunde den aldetik, aniztasunari erantzuteko eremua behar da. Ahalik eta eremurik normalizatuenetan integratzen du aniztasuna, ikasleen gaitasunak ahal beste garatzeko; horrela, guztiek dituzte aukera berdinak hezkuntzako prozesu eta emaitzetan eta ikasketak hautatzean.

Gure irakasleen taldea ikasleen aniztasunei benetako erantzun egokia emateko antolatuta dago. Horretarako, ondokoak aurrez ikusita ditu: hausnarketa eta prestakuntzarako eremu eta aldiak, praktiken ikuskatzea, profesionalen arteko laguntzak, prestakuntza ikastetxean bertan, adituen aholkularitza eta abar.

Honetaz gain, Tutoretza eta orientazioa funtsezkoak dira ikasleak banan-banan ezagutu eta horien banakako ardura izateko. Orientazio Departamenduaren eta laguntzarako kanpoko zerbitzuen bidez, tutoreek hurbiletik aztertzen dute ikasleen



ORIENTAZIO PLANA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



ikasketa prozesua, gainera, zailtasunen zioak ikertu eta helburu horiei begirako programa eta ekintzak egiten dituzte. Era berean, taldearen dinamika eta ikasleak taldean nola integratzen diren ikuskatuko dute.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ezarri duen markoan aniztasunari erantzuten diogu.

4.1.2 Neurri arrunt eta orokorrak

Ikastetxeen Ikasketa-Proiektuak atal berezia dugu, aniztasunari buruzko planteamendua azaltzeko, betiere aniztasunaren benetako testuingurua aintzat hartuz.

Programazio didaktikoa taldeko ikasleen beharriaz egokitu zaie eta beharriaz horiek hasierako ebaluazioan detektatzen dira. Irakasleek alor guztietako programazioak koordinatu eta horien jarraipena egiten dute, batez ere ebaluazioari dagokionez.

Alor eta gaiak orduka banatzea.

- a) Aukerako espazioa. Espazio honetako ikasgaien bidez, beste modu batera antolatzen da *curriculum*a, ikasleentzat interesgarriagoak diren eredu didaktiko berritzaileak daudelako.

4.1.3 Aparteko neurriak

Beste urtebetez geratzea ziklo edo ikasturtean. Ziklo edo ikastaroko ikasgai guztiak gainditzen dituztenak hurrengo ikasturtera igaroko dira, baita bi ikasgai gainditu gabe utzi dituztenak ere, baina beste urtebetez geratu beharko dute, baldin eta gainditu ez dituzten ikasgaiak ikastorduen %50 baino gehiago ez badira. Bi mutur horien artean dauden kasuan, irakasleen bi herenak erabakiko du hurrengo ikasturtera igaroko diren ala ez. Lehen Hezkuntzan behin baino ezin daiteke neurri hori aplikatu eta DBHn ere behin bakarrik; birritan ere aplikatu daiteke, baldin eta lehen hezkuntzan aplikatu ez bada edo zinez uste bada ikasleak etapako helburuak beteko dituela.

Hezkuntza esku-hartze proiektuak. Gizarte arazo edo jarrera disruptiboak direla eta, atzerapen handia duten eta inola ere ikasi nahi ez duten 16 urtetik beherako ikasleentzako proiektuak dira. Halako esku-hartzea behar duten ikastetxeek ikasle horiekin jarduteko proiektua izan behar dute eta beharrezko aldaketak egin beharko dituzte *curriculum* eta antolaketan; gainera, ikasleak ahalik eta gutxien bereizi behar dira eta tutoretza pertsonalizatua eskainiko zaie, oinarrizko ikasketak izan ditzaten.



ORIENTAZIO PLANA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak beharrezko giza baliabide eta baliabide materialak emango ditu.

Osagarriko eskolatzearen programak. Kasurik larrienetan, ikastetxeek proposa dezakete ikaslea ikastetxe espezializatu batera eramatea. Profesional anitzez osaturiko taldeak neurri hori komeni denentz azertu eta Hezkuntza Ikuskaritzak ikus-onetsiko du.

Curriculum desberdinak eratzeko programak ikasi nahi duten eta lehenengo zikloko helburuak gainditu dituzten 16 urtetik gorako ikasleentzat dira.

4.1.4 Hezkuntza Premia Bereziak dituzten ikasleentzako neurriak

Banakako curriculum-egokitzapenak. Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen *curriculum*a egokitzeko mekanismoa da. Lehen eta Haur Hezkuntzan gela arruntean lan egingo da batez ere ikasle horiekin, eta ahalik eta gutxien gelatik kanpo. Bigarren Hezkuntzan, berriz, lan gehiago egiten da gelatik kanpo.

Zereginen ikaskuntzarako gelak. 16 urteko ikasle atzeratuek gela horietan ikasten dute, non lehenengo urratsak eman baititzakete profesional moduan.

Eskolan eman beharreko denbora gehitzea edo gutxitzea.

Ezgaitasunak dituzten ikasleak gainerako ikasleak baino urtebete gehiago egon ahal izango dira Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan. 16 urte dituztenean, atzeratuak atazak ikasteko geletara igarotzen dira.

Gaitasun handia duten ikasleak, aldiz, urtebete gutxiago egon daitezke hezkuntza etapa bakoitzean.

Herri Ametsan aniztasunari erantzun ahal izateko Pedagogian espezializatutako Orientatzailea dugu. Honek lansaio erdia ematen du orientazio lanetan. Orientatzaileaz gain HH, LH eta DBHrako Pedagogia terapeutiko irakasleak ere baditugu. Irakasle arruntari aholkatzen diote, beharrian bereziak dituzten ikasleei laguntzeko. Ikastolatik at, Berritzegunean, hizkuntzako arazo espezifikoak dituztenei laguntzeko entzumen eta hizkuntza alorreko irakaslea ere badugu.

Bestalde eta egoerak eskatzen duenean Hezkuntza errefortzurako irakasleak ditugu. Hezkuntza errefortzua aniztasuna tratatzeko neurri arrunta da, eta honetan oinarritzen da besteak beste: taldeak zatitu, talde berean bi irakasle jarri, banakako edo taldekako tutoretza jarduerak egin ikastorduetatik kanpo... Hauetaz gain, irakasle laguntzaileak ditugu hezkuntza premia oso bereziak duten ikasleaz arduratzeko.



ORIENTAZIO PLANA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan eta DBHn irakasleek ikastorduetan geratzen zaien denbora ematen dute hezkuntza errefortzu lanetan.

Gure ikasleen beharretara egokitutako Proiektu kurrikularra sortzeko helburuz, parametro hauen arabera horren ezaugarrien balioespena egitea erabaki dugu:

□ **Zer balioetsi:**

- Aurreko zikloan ikasleek izan duten errendimendua.
- Nortasuna.
- Zaletasunak eta interesak.
- Familiaren ekonomia- eta kultura-egoera.
- ...

□ **Nola lortu informazioa:**

- Ebaluazio bileretan ematen den informazioa jasoz.
- Aurreko tutoreen txostenak irakurriz.
- Berritzegunetik lortutako informazioa jasoz.
- Irakasleei galderak eginez.
- Ikasleei galdeketak eginez.
- Banakako elkarrizketak eginez.
- Gurasoei galdeketak eginez.
- Gurasoekin elkarrizketak eginez.
- ...

Horrela, ikasleen gaitasuna, ikasketa-eredua, motibazioa eta interes-aniztasuna kontuan izanik, ikastolak hainbat erantzun mota aurreikusiko ditu.

Egokitzapen kurrikularrak deitzen diegu gure ikasleen berezitasunei arreta jartzeko, curriculumean egiten diren aldaketa guztiei. Aldaketak egitean, taldeak edo irakasleak bi gauza zehaztu beharko ditu aldezturik: zer estrategia erabiliko duten eta zer ikasle motak lagundu edo oztopa dezakeen estrategia hori (zer taldetan egiten duen lan ongien, zenbat denbora ematen duen kontzentratuta, zer eduki bereganatzen dituen, zer iritzi duen bere buruaz...).

Egokitzapen kurrikularren baitan, bi erantzun-eredu bereiziko ditugu, aurkituko ditugun hainbat egoeraren arabera:

□ **Egokitzapen kurrikular ez-esanguratsuak.**

□ **Egokitzapen kurrikular esanguratsuak.**



ORIENTAZIO PLANA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



5. ORIENTAZIO ZERBITZUKO URTEKO EKINTZA PLANA

H. N	UPO	Helburu Orokorrak	Ekintza Plana	Partai deak	Arduraduna	Epea Datak	Adierazleak (aktetan jaso)	Lorpen Tasa
ORIENTAZIO ZERBITZUKO EKINTZA PLANA	H.1.1	1. Kurtso hasieran UPOn egutegia finkatu	<ul style="list-style-type: none"> ❑ Guraso eta ikasleekin biltzeko garaia zehaztu 	HEZKUNTZA KOMUNITATEA	Ikasketa Burua	Iraila	<ul style="list-style-type: none"> ❑ Bileren guztien data ❑ UPOn agertzea 	%100
		2. Gurasoen Taldeko programazioa gauzatu.	<ul style="list-style-type: none"> ❑ Honako guraso bilerak gauzatzea: <ul style="list-style-type: none"> • 2-3 urte (HHrako) • LH 6. (DBH 1erako) • DBH 3.(DBH 4rako) • DBH 4 (Batxilergo edota Erdi ziklotarako) 		Orientatzailea Zuzendaritza Taldea	Kurtsoan zehar	<ul style="list-style-type: none"> ❑ Bileretako deialdia ❑ Bileretan ematen den informazioa ❑ Bileren partaidetza portzentaia (%70) 	%90
		3. Gurasoen orientazio indibiduala gauzatu	<ul style="list-style-type: none"> ❑ Familiekin honako banakako bilerak gauzatzea: <ul style="list-style-type: none"> • Tutorea + Orientatzaile. • Tutorea + PTa • Tutorea + PT + Orient. 		Orientatzailea	Kurtsoan zehar	<ul style="list-style-type: none"> ❑ Bileren akta ❑ Bilera kopurua 	%85



ORIENTAZIO PLANA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



H.N	UPO	Helburu Orokorrak	Ekintza Plana	Partai deak	Arduraduna	Epea Datak	Adierazleak (aktetan jaso)	Lorpen Tasa
ORIENTAZIO ZERBITZUKO EKINTZA PLANA		4. Ikasle Taldeko programazioa gauzatu.	<ul style="list-style-type: none"> <input type="checkbox"/> Honako ikasle talde bilerak gauzatzea: <ul style="list-style-type: none"> • LH 6. (DBH 1erako) • DBH 3.(DBH 4rako) • DBH 4 (Batxilergo edota Erdi Ziklo) 	HEZKUNTZA KOMUNITATEA	Zuzendaritza Taldea	Kurtsoan Zehar	<ul style="list-style-type: none"> <input type="checkbox"/> LH 6. mailako ikasleekin biltzeko eguna eta plana <input type="checkbox"/> DBH 3. mailako ikasleekin biltzeko eguna eta plana <input type="checkbox"/> DBH 4.. mailako ikasleekin biltzeko eguna eta plana 	%100
		5. Ikasle indibidualen orientazio gauzatu	<ul style="list-style-type: none"> <input type="checkbox"/> HH 5 urtekoen frogak <input type="checkbox"/> HPBko ikasleen orientazioa gauzatzea <input type="checkbox"/> ZIPEko ikasleen orientazioa gauzatzea <input type="checkbox"/> Progr. Osagarrietako orientazioa gauzatzea 		Orientatzailea Ikasketa Burua	Kurtsoan zehar	<ul style="list-style-type: none"> <input type="checkbox"/> Zuzendutako ikasle kopurua <input type="checkbox"/> Egindako bisita kopurua zehaztea 	%100
		6. Ikasleen jarraipena gauzatzeko Kanpoko Espezialistekin bildu	<ul style="list-style-type: none"> <input type="checkbox"/> Berritzegunea + CRI <input type="checkbox"/> Gautenakoekin biltzea <input type="checkbox"/> CSSkoekin biltzea <input type="checkbox"/> Osakidetzakoekin (EPI) biltzea <input type="checkbox"/> Diputziokoekin biltzea <input type="checkbox"/> Pedagogo, psikologo partikularrekin biltzea 		Orientatzailea Ikasketa Burua	Kurtsoan Zehar	<ul style="list-style-type: none"> <input type="checkbox"/> Burututako bilera guztien egutegia izatea <input type="checkbox"/> Burututako bilera guztien akta jasotzea 	%100



ORIENTAZIO PLANA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



H.N	UPO	Helburu Orokorrak	Ekintza Plana	Partai deak	Arduraduna	Epea Datak	Adierazleak (aktetan jaso)	Lorpen Tasa
ORIENTAZIO ZERBITZUKO EKINTZA PLANA		7. Irakasleen beharrei erantzun	<ul style="list-style-type: none"> <input type="checkbox"/> Protokoloak aurkeztu <input type="checkbox"/> Materiala prestatu <input type="checkbox"/> Irakasleekin bilerak koordinatu. <input type="checkbox"/> CEI/ACIak burutzen lagundu <input type="checkbox"/> Tutoreekin koordinaketak burutu. 	HEZKUNTZA KOMUNITATEA	Orientazio Departamendua	Kurtsoan Zehar	<ul style="list-style-type: none"> <input type="checkbox"/> Protokoloak <input type="checkbox"/> Bileren erregistroa <input type="checkbox"/> Aktak <input type="checkbox"/> CEIa <input type="checkbox"/> Helarazitako dokumentu eta materialak 	%100
		8. Ekintza planari buruzko ebaluaketa egin.	<ul style="list-style-type: none"> <input type="checkbox"/> Ekintza plana ezagutzen duten irakasleen % aztertzea <input type="checkbox"/> Jasotzen den balorazio ehunekoa aztertzea <input type="checkbox"/> Egokitzat jotzen duten tutoreen ehunekoa ezagutzea 		Zuzendaritza Taldea	Kurtsoan Zehar	<ul style="list-style-type: none"> <input type="checkbox"/> Burututako bilera guztien egutegia izatea <input type="checkbox"/> Burututako bilera guztien akta jasotzea 	%100
		9. Ebaluazio Bilera guztietan parte hartu.	<ul style="list-style-type: none"> <input type="checkbox"/> Ikasleen jarraipena egin <input type="checkbox"/> Orientazioa bermatu 		Ikasketa Burua	Kurtsoan Zehar	<ul style="list-style-type: none"> <input type="checkbox"/> Ebaluazio Txostena 	%100



ORIENTAZIO PLANA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



6. ORIENTAZIO ZERBITZUKO EBALUAZIOA

Orientazio Departamenduak, Herri Ametsako beste organo guztiak bezala, ebaluazio, jarraipen eta doitze programa bat du. Programa honen bidez, Orientazio lana neurtuko du.

Orientazio departamenduko urteko planaren ebaluazioa ikasturtearen zehar sistematikoki egingo da. Horrela, hiruhilabeteren zehar hobetze proposamenak eta ebaluazioko balorazioak jaso ostean egin beharreko doitzeak egingo dira. Aldaketa hauek, suertatuko balira, Zuzendaritza Taldean aurkeztuko den azken memorian agertu beharko dira.

Honek ez du esan nahi une hori arte ez ditugunik egingo. Horrela ikasturtean zehar eta Departamenduko beste partaideekin adostu ondoren egin beharreko doitzeak egingo dira.

Guzti hau aurrera eraman ahal izateko honelako prozesua eramango dugu aurrera:

1. Hasierako egoeratik hasita Orientazio Departamenduak behar desberdinetaz jabetuko da.
2. Planifikatutakoa Zuzendaritza Taldean aurkeztuko da egokitasunaz, eginbeharrekoaz eta lortutakoaz aritzeko.
3. Organo horretan adostutakoa etapa desberdinetan aurkeztuko da hauen iritzia jasotzeko
4. Onespena lortu ondoren planifikazioa aurrera eramaten hasiko da.

Ebaluaketa honetan honako irizpide eta adierazle hartuko dira kontuan:

- **Irizpide kuantitatiboak:** ikasle kopurua, ekintzen lorpen tasa, bideratutako kasuak, detektatutako kasu berriak...
- **Irizpide kualitatiboak:** Ekintza guztien balorazioa egingo da bai egokitasun aldetik, bai kohesio aldetik. Urteko Planaren betetze maila izango da aztergai (hasierako beharren egokitasuna, egindakoaren helburuen betetze maila, prozesu, ekintzen emaitzen balorazioa, ikasturtean zehar eragindako hobetze ekintzak, bideratu ez diren beharrak...).



ORIENTAZIO PLANA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



Guzti honekin ikasturte bukaeran azken memoria bat osatu beharko litzateke. Txosten honetan honako atalak ezinbestekoak lirateke:

a) Hasierako beharren ebaluazioa:

- Azken txostenen tutoreen informazioa
- Ebaluazio bileretako irakasleen balorazioa
- ACI/CEN kopurua
- Beste ikastetxeetako ikasle berrien informazioa
- Berritzegunetik jasotako txostenen informazioa
- Mapa eskolarra
- Zuzendaritza Taldearen eskaerak
- Gurasoen eskaerak

b) Orientazio Departamenduko ekintza planaren jarraipena

- Aurrera emandako neurrien egokitasuna
- Proiektuaren eraginkortasuna
- Egokitasun maila bai ikaslearekiko bai ikastolarekiko
- Barne koherentzi maila
- Errendimendua (proiektuaren baliagarritasuna, eraginkortasuna eta lorpen tasa)
- Eraitzen transferentzi eta proiektzioa